ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, NEIKERREN ARKAUTIKO ETA DERIOKO ZENTROETAN INGURUMEN-INPAKTUAK MINIMIZATZEKO IRIZPIDEAK DITUZTEN *VENDING* MAKINAK INSTALATZEKO ESPAZIO PUBLIKOA ERABILTZEKO EMAKIDAN APLIKATU BEHARREKOA (Erref. 01/25)

1. KONTRATUAREN XEDEA

Prozedura honen xedea da NEIKER NEKAZARITZA IKERKETA ETA GARAPENERAKO EUSKAL ERAKUNDEA SAk kontratista bat hautatzea, administrazio-klausula partikularren agiriaren **karatularen** (aurrerantzean, karatula) **1. puntuan** adierazitako zerbitzuak emateko.

Aipatutako zerbitzuak agiri honi, preskripzio teknikoen agiriari eta kontratistaren proposamenari jarraikiz emango dira.

Kontratuaren zati batzuk bereizita ematea aurreikusiz gero (lotetan banatuta), **Karatularen 1. puntuan** honako hauek adierazten dira: kontratua zein lote zehatzetan dagoen banatuta; hala badagokio, zenbat loterako aurkez dezakeen eskaintza lizitatzaile batek; hala badagokio, lizitatzaile bakoitzari adjudika dakizkiokeen loteen kopurua, eta kasu bakoitzean zehaztutako alderdiak.

Kontratuaren CPV kodea **Karatularen 1. puntuan** adierazita dago.

2. ERAKUNDE KONTRATATZAILEA ETA KONTRATAZIO-ORGANOA

Erakunde kontratatzailea NEIKER NEKAZARITZA IKERKETA ETA GARAPENERAKO EUSKAL ERAKUNDEA SA da (aurrerantzean, erakunde kontratatzailea).

Kontratazio-organoa **Karatularen 2. puntuan** adierazitakoa da. Organo horrek, hala badagokio eta aplikatzekoak diren zuzenbide pribatuko arauei jarraituz, berariaz ahaldundu ahal izango ditu kontratuarekin lotutako jarduera jakinak betetzeko egokitzat jotzen dituen pertsonak.

3. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

Kontratua kalitate/prezio erlazio onena duen eskaintza (aurrerantzean, eskaintza onena) aurkezten duen lizitatzaileari adjudikatuko zaio, prozedura irekiaren bidez, eta agiri honetan zehaztutako adjudikazio-

irizpideei jarraikiz.

Kontratuaren lote guztiak (1. eta 2. loteak) ERRESERBATUTA daude gizarte-ekimeneko enplegu-zentro berezientzat eta gizarteratze-enpresentzat (Sektore Publikoko Kontratuen Legearen laugarren xedapen gehigarria).

4. ALDAERAK

Lizitatzaileek aldaerak eskaintzeko aukera, hala dagokion kasuetarako, **Karatularen 3. puntuan** dago adierazita.

Aldaerak onartzen direnerako, **Karatularen 3. puntuak** adierazten ditu haien gutxieneko betebeharrak, modalitateak eta ezaugarriak, baita kontratuaren xedearekin duten lotura ere.

5. KONTRATU-DOKUMENTAZIOA

Kontratu-izaera izango dute dokumentu hauek:

- Administrazio-klausula Partikularren Agiri honek eta haren Karatulak.
- Preskripzio Teknikoen Agiriak.
- Adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzak.
- **Karatularen 4. puntuan** adierazten den beste edozein dokumentazio.

Adjudikaziodunak, kontratua formalizatzeko ekitaldian, sinatu egin beharko ditu dokumentu horiek, haiekin ados dagoela frogatzeko.

6. KONTRATUAREN IRAUPENA

Kontratuaren iraupena **Karatularen 5. puntuan** adierazten da.

7. ELEMENTU EKONOMIKOAK

7.1. LIZITAZIORAKO OINARRIZKO AURREKONTUA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua **Karatularen 6.1 puntuan** dago

adierazita.

Bestalde, kontratuaren prezioa ere **Karatularen 6.1 puntuan** dago adierazita.

Kontratuaren prezio horren barruan egongo dira kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren kostu guztiak; besteak beste, honako hauek, baina ez hauek bakarrik:

- Kontratua gauzatzeko zuzeneko eta zeharkako kostu guztiak, Agiri honetan eta Baldintza Teknikoen Agirian ezarritakoari jarraikiz. Era berean, ez da onartuko aldez aurretik azken prezioan jaso behar ziren kontzeptuak ondoren fakturatzea.

- Kontratua gauzatzeari atxikitako kontzeptu guztiak eta hori gauzatzeko erabilitako langileei dagozkien gastu guztiak (hau da, soldatak eta gizarte-segurantza, oporrak eta aparteko ordainsariak, bajengatiko edo gaixotasunengatiko ordezkapenak, banako istripu-aseguruak, eta abar), eta, era berean, baita zerga guztiak (BEZa salbu), aseguruak, lizentziak, garraiorako eta lekualdatzeko gastuak, baimenak eta gainerako gastu orokorrak ere.

- Kontratistak kontratua gauzatzeko erabili beharreko bitarteko, erreminta, ibilgailu, ekipamendu, tresna, ekipamendu informatiko eta gailu guztiak.

- Erakunde kontratatzaileak zehaztutako lan- edo informazio-bilera guztietara bertaratzea, kontratua behar bezala garatu eta betetzeko.

- **Karatularen 6.1 puntuan** aipatzen diren beste kontzeptu guztiak.

7.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiteko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen (aurrerantzean, SPKL) 101. artikuluan ezarritako moduan eta ondore horietarako, Kontratuaren balio zenbatetsia **Karatularen 6.2 puntuan** adierazitako zenbatekoa da.

Balio zenbatetsi hori SPKLren 101. artikuluan ezarritakoari jarraikiz kalkulatu da.

Aurreikuspen horrek ez du erakunde kontratatzailearentzat konpromiso

jakin bat sortzen.

8. ORDAINKETA

Erabiltzaileek zerbitzuak zuzenean ordainduko dizkiete enpresa adjudikaziodunei.

Baldintza-agiri honetan ezarritako kontratuaren objektua ez diren lanak ez dira ordainduko, ezta entitate kontratatzaileak aurretik eskatu ez dituenak ere.

9. PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Karatularen 8. puntuan xedatutakoa aplikatuko da.

10. PUBLIZITATEA

Erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilean honako hauek argitaratuko dira:

- Lizitazioaren deialdiaren iragarkia.
- Kontratuaren adjudikazioaren iragarkia.
- Kontratuaren formalizazioaren iragarkia.
- SPKLren 63. artikuluan aipatutako gainerako informazioa.

Honako webgune honen bitartez sartu ahal izango da entitate kontratatzailearen kontratatzailearen profilera: www.neiker.eus

11. BEHIN BETIKO BERMEA

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak behin betiko bermea eratu beharko du, eta horren zenbatekoa **Karatularen 9. puntuan** adierazitakoa izango da.

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak aipatutako behin betiko berme hori eratu duela egiaztatu beharko du. Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango du, kontratazio-organoaren errekerimendua jaso eta hurrengo

egunetik kontatzen hasita.

Aipatutako behin betiko bermeak SPKLren 110. artikuluan aipatutako kontzeptuei erantzungo die.

Bermea SPKLren 108. artikuluan ezarritako moduetako batean eratu ahal izango da, eta ez da beharrezkoa izango hori Gordailu-kutxa Orokorrean eratzea.

Abal gisa eratzen bada, Agiri honen **I. eranskinean** jasotako eredura egokituko da.

Bermea eratu dela frogatzeko, bitarte elektronikoak erabili ahal izango dira.

Behin betiko bermearen gainean kontratistari eska dakizkiokeen zigorrak eta kalte-ordainak egikaritzen badira, bermea berrezarri edo handitu beharko du, dagokion zenbatekoan, horiek egikaritu eta hamabost egun naturaleko epean. Hori egin ezean, kontratua eteteko arrazoia izango da.

Kontratua aldatzearen ondorioz horren prezioa aldatzen bada, kontratistak berregokitu egin beharko du behin betiko bermea, aldatutako prezio berriarekiko proportzioari eutsi diezaion. Kontratistak hamabost egun naturaleko epea izango du bermea aldatzeko, aldaketaren erabakia jakinarazten zaion egunetik kontatzen hasita.

Bermea SPKLren 111. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, berme-epea amaitu ondoren eta kontratistak bere kontratu-betebehar guztiak bete ostean.

Erakunde kontratatzaileak aldeko txostena egin ondoren itzuliko da bermea.

Klausula honetan ezarri ez den guztian, SPKLren 106. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa aplikatuko da.

12. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Erakunde kontratatzailearekin kontratuak gauzatu ahal izango dituzte jarduteko gaitasun osoa duten Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek, kontratatzeko debekurik ez badute eta beraien kaudimena frogatzen badute.

Kontratuaren xede diren prestazioak emateko eska daitekeen enpresa- edo lanbide-gaikuntza ere izan beharko dute lizitatzaileek.

Pertsona juridikoak kontratuaren adjudikaziodun izateko, ezinbestekoa izango da kontratuko prestazioak haien estatutuetan edo eratze-arauetan adierazitako helburuen, xedearen edo jarduera-esparruaren araberakoak izatea.

Nolanahi ere, erakunde kontratatzailearekin kontratuak egiteko ahalmena izango dute espainiarrak ez diren eta Europar Batasuneko estatuetako edo Europako Ekonomia Eremuari buruzko hitzarmena sinatu duten estatuetako enpresek, baldin eta ezarrita dauden estatuaren legeriari jarraikiz kontratuaren xede den prestazioa egiteko gaituta badaude; SPKLren 67. artikuluan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Enpresa horiek kokatuta dauden estatuko legeriak enpresei dagokien zerbitzua emateko baimen bereziren bat izatea edo erakunde jakin batekoak izatea eskatzen badie, kondizio hori betetzen dutela egiaztatu beharko dute.

Nazioarteko akordioetatik sortutako Espainiako betebeharrak betetzeaz gain, Europar Batasunekoak ez diren estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko akordioa sinatu duten estatuetako pertsona fisiko edo juridikoek txosten baten bidez frogatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak ere onartzen duela Espainiako enpresek parte hartzea SPKLren 3. artikuluan aipatutako sektore publikoko erakunde parekagarrien kontratazioan, modu berdintsuan. Txosten hori kasuan kasuko Espainiaren atzerriko ekonomia- eta merkataritza-bulegoak prestatuko du, eta gainerako dokumentazioarekin batera aurkeztuko da.

Honako hauek kontratatu ahal izango dute erakunde kontratatzailearekin: horretarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek; horretarako, ez da beharrezkoa izango elkarte horiek eskritura publikoan formalizatzea, harik eta kontratua adjudikatu zaien arte. SPKLren 69. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Lizitatzaileek **Karatularen 10. puntuan** adierazitako kaudimen ekonomiko eta finantzarioari buruzko eta gaitasun profesional eta teknikoari buruzko gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte.

Hala badagokio, lizitatzaileek, gutxienez, **Karatularen 10. puntuan** adierazitako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak atxiki beharko dizkiote kontratuaren gauzatzeari.

Era berean, lizitatzaileek **Karatularen 10. puntuan** adierazitako eskakizun espezifikoak bete beharko dituzte, halakorik egonez gero.

Lizitatzaileei kontratuaren gauzatzeari giza baliabide eta/edo baliabide material jakin batzuk atxikitzeko konpromisoa eskatuz gero, konpromiso horrek funtsezko kontratu-betebeharraren izaera izango du SPKLren 211. f) artikuluan aurreikusitako ondorioei dagokienez, eta, beraz, hori ez betetzea kontratua suntsiarazteko kausa izango da, erakunde kontratatzaileak hala nahi izanez gero.

Kontratistak kontratua gauzatzeari atxikitako pertsonari dagokionez aldaketak egiten baditu, erakunde kontratatzaileak hitzemandako pertsona eskatu ahal izango dio berehala; bestela, eta kontratistari egozten ez zaizkion arrazoien eraginez hori ezinezkoa bada, langile hori prestakuntza eta esperientzia bereko beste giza baliabide batzuen bitartez ordezkatu dezala eskatu ahal izango du. Pertsona horrek erakunde kontratatzailearen berariazko baimena izan beharko du.

Eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko, lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu ahalko dira, horiekiko loturen izaera juridikoa edozein dela ere, erakusten badute kontratuaren indarraldi osoan kaudimen eta/edo baliabide horiek izango dituztela, eta erakunde horrek kontratatzeko debekurik ez badu.

Beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi duten lizitatzaileek hori adierazi beharko dute 1. gutun-azalean sartu beharreko erantzukizunpeko adierazpenean (zehazki, EKABren II. zatiko C atalean).

Era berean, eskaintza onena aurkezten duen lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu, beharrezkoak diren baliabideak izango dituela frogatu beharko du erakunde horien idatzizko berariazko konpromisoaren bidez (**II. eranskineko** edukiari jarraikiz prestatu beharko dute).

Eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak kaudimena eta/edo baliabideak atxikitzeko konpromisoa egiaztatzeko erabili dituen erakundeek notarioaren aurrean eman beharko dute konpromiso hori, honako hau adierazita: osoki ezagutzen dituztela lizitatzailea parte hartzera doan lizitazioko baldintzak, badituztela aipatutako kaudimena eta/edo atxiki beharreko baliabideak, hori frogatzeko agiria aurkezten dutela (17. klausulan aurreikusitako eran), eta asmo ezeztaezina dutela aipatutako lizitatzaileari, baldin eta adjudikaziodun gertatzen bada, kontratua

gauzatzeko beharrezko bitartekoak eskaintzeko (berariaz onartzen dute Kode Zibileko 1257.2 artikuluan xedatutakoa, zeina ordeztea edo aldatzea erakunde kontratatzaileak berariaz onartu behar duen). Aipaturiko idazkia aurkeztuz gero, erakunde kontratatzaileak konpromiso hori onartuko du, dagokion lizitatzailea adjudikaziodun suertatzen bada.

Konpromiso hori eskaintza onena egin duen lizitatzaileak aurkeztuko du. Horretarako, 10 egun balioduneko epea izango du, kontratazio-organoaren errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita.

Klausula honek aipatzen dituen kontratatzeko ahalmenari, kaudimenari eta debekuak ez izateari buruzko baldintzak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete beharko dira, eta kontratua burutzean indarrean iraun beharko dute.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

13.1. AGIRIETARAKO ETA DOKUMENTAZIO OSAGARRIETARAKO SARBIDEA

Agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria eskura egongo dira lizitazio-iragarkia aurkezten denetik eta proposamenak aurkezteko epe osoan, erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilean.

Baldintza-agirietarako eta gainerako dokumentazio osagarrietarako sarbidea bide ez-elektronikoen bidez ematen den kasuetarako, **karatularen 11.1 puntuan** adieraziko da.

13.2. AURKEZTEKO BIDEAK

Proposamenak baliabide elektronikoak erabiliz aurkeztuko dira, SPKLren hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritako eskakizunei jarraikiz, xedapen gehigarri horren 3. zenbakian ezarritako egoeren kasuan izan ezik, eta hori **Karatularen 11.1 puntuan** adierazita badago.

Proposamenak baliabide elektronikoen bidez aurkezteko beharrezko diren informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta dataren baliozkotzea barne, Eusko Jaurlaritzaren lizitazio elektronikoaren aplikazioaren webgunean daude adierazita, helbide honetan: http://www.contratacion.euskadi.eus

Eskaintzen baliabide elektroniko bidezko bidalketa bi fasetan egin ahal izango da: lehenengo, eskaintzaren hatz-marka elektronikoa helarazi

beharko da (hori jasotzean, egintzat hartuko da eskaintzaren aurkezpena ondorio guztietarako), eta, gero, eskaintza bera, gehienez ere 24 orduko epean. Bigarren igorpen hori adierazitako epean egiten ez bada, eskaintza erretiratu egin dela ondorioztatuko da.

Eskaintzaren hatz-marka elektronikoa datuen multzoa da, eta datu horien eratze-prozesuak bermatzen du modu argian lotzea eskaintzaren edukiarekin. Halaber, datuok ahalbidetzen dute eskaintzaren edukiaren balizko aldaketak detektatzea, eta osotasuna bermatzen dute. Espedienteari erantsi beharreko kopia elektronikoek administrazio-prozedura erkidearen arloko indarreko legeriak horretarako ezarritakoa bete beharko dute, eta horretan ezarritako eragina izango dute.

Karatularen 11.1 puntuak proposamenak baliabide ez-elektronikoen bidez aurkeztea aurreikusten duen kasurako, lizitatzaileek eskuz edo postaz aurkeztu beharko dituzte hiru gutun-azal itxi, karatularen 11.1 puntuan adierazitako epean, lekuan eta ordutegian, geroago adierazten den dokumentazioa sartuta. Halaber, gutun-azaletan honako hauek adieraziko dira: zein kontrataziotan parte hartzen den, kasuan kasuko gutun-azalaren zenbakia (1. gutun-azala, 2. gutun-azala edo 3. gutun-azala), enpresaren izena, proposamena sinatzen duen pertsonaren izen eta abizenak eta zein izaerarekin egiten duen, telefono-zenbakiak eta helbide elektronikoa. Hori guztia modu irakurgarrian idatzi beharko da.

Proposamenak baliabide ez-elektronikoen bidez aurkezteko denbora-muga, **karatularen 11.1 puntuan** ezarritakoa, ez da aplikatuko proposamenak postaz igorriz gero. Kasu horretan, proposamenak aurkezteko epearen azken eguneko edozein ordutan aurkeztu ahalko dira, betiere ondorengo paragrafoan adierazitako baldintzak betetzen badira.

Lizitatzaileak proposamena postaz bidaliz gero, justifikatu beharko du zein egunetan zigilatu zen bidalketa postetxean, eta bidali diola eskaintza jakinaraziko dio entitate kontratatzaileari, egun berean, telexez, faxez (zenbaki honetara: 945281322) edo presazko telegrama baten bidez. Halaber, posta elektronikoz ere jakinaraz daiteke proposamena bidali dela (helbide honetara idatzita: admin@neiker.eus). Honako baldintza hauetan bakarrik izango da baliozkoa posta elektronikoz egindako jakinarazpena: proposamenaren bidalketa eta jasotzea, haien datak, eta komunikazioen eduki osoak jasota gelditu badira, eta bidaltzailea nahiz hartzailea modu fidagarrian identifikatzen badira. Kasu horretan, kopia inprimatu bat eskuratu eta erregistratuko da, eta txostenari erantsiko zaio. Bi baldintza horiek bete ezean, agiriak ez dira onartuko, iragarkian adierazitako epea amaitu ondoren jasotzen badira. Nolanahi ere, adierazitako dataren ondoren hamar egun natural igaro, eta proposamena jaso ez bada,

proposamena ez da inola ere onartuko.

13.3. GUTUN-AZALEN EDO FITXATEGI ELEKTRONIKOEN EDUKIA

Lizitatzaileen proposamenak Agiri honetara eta haren Karatulara, Preskripzio Teknikoen Agirira eta gainerako kontratu-dokumentaziora egokitu beharko dira, eta proposamena aurkezteak adierazten du lizitatzaileak baldintzarik gabe onartzen duela klausula guztien edukia, inolako salbuespenik edo erreparorik gabe.

Gutun-azal edo fitxategi elektroniko guztiek ondoren adierazitako dokumentuak bilduko dituzte, baita horietan sartutako dokumentuen zerrenda zenbakitua ere.

Gutun-azal fisikoak (proposamenak baliabide ez-elektronikoen bidez aurkezten direnean) ala fitxategi elektronikoak izan (proposamenak baliabide elektronikoen bidez aurkezten direnean), 1. gutun-azala, 2. gutun-azala eta 3. gutun-azala izenak jarriko zaizkie, bereizi gabe.

1. gutun-azala. «AURRETIKO BETEKIZUNAK BETE IZANARI BURUZKO DOKUMENTAZIOA»

Lizitatzaileek dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

1. Europako kontratazio-dokumentu bakarraren formulariora doitutako (aurrerantzean, EKDB) erantzukizunpeko adierazpena, Agiri honi **III. eranskin** gisa atxikiko zaiona, eta jarraian adierazitakoaren arabera beteko dena:

    - Europako kontratazio-dokumentu bakarraren formulario normalizatua ezartzen duen Batzordearen 2016ko urtarrilaren 5eko (EB) 2016/7 Exekuzio Erregelamenduaren I. Eranskinean jasotako Jarraibideekin bat bete behar da EKDB.
    - «II. zatia: Operadore ekonomikoari buruzko informazioa»ri dagokionez, **ERRESERBATUTAKO kontratua** denez, **operadore ekonomikoak tailer babestu bat edo gizarte-enpresa bat den adierazi beharko du.**

    - EKDBren «IV. zatia: hautaketa-irizpideak» atalari dagokionez, lizitatzaileek A atala baino ez dute bete behar: «Hautaketa-irizpide guztiei buruzko adierazpen globala».

- Lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimen eta/edo baliabideak erabiltzen baditu, agiri honetako 12. klausularekin bat, erakunde horietako bakoitzak ere aurkeztu beharko du erantzukizunpeko adierazpena, EKDBren II. zatiko eta III. zatiko A («Operadore ekonomikoari buruzko informazioa») eta B («Operadore ekonomikoaren ordezkariei buruzko informazioa») ataletan eskatzen den informazioa jasoz.

- Zenbait enpresaburu aldi baterako elkarte gisa taldekatuta aurkezten diren kasu guztietan, enpresa partaide bakoitzaren erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da eta horretan EKDBren II. eta V. zati bitartean eskatzen den informazioa agertuko da.

- **VI. eranskina**. Berdintasun-planaren erregistroaren adierazpena

2. Aldi baterako elkarte baten barruan esku hartu nahi duten enpresaburuek elkartea eratzen edo eratuko dutenen izenak eta ezaugarriak adierazi beharko dituzte, bai eta bakoitzaren partaidetza ere, eta, adjudikaziodun gertatuz gero, aldi baterako enpresa-elkartea eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako enpresa-elkarte baten barruan parte hartu nahi duten enpresaburuak solidarioki behartuta egongo dira, eta kontratuak eragindako eskubideak erabiltzeko eta betebeharrak betetzeko behar beste ahalmen duen ordezkari edo ahaldun bat izendatu beharko dute hura amaitu arte; halere, zenbateko handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko ahalorde mankomunatuak ere eman ahal izango dituzte.

3. Atzerriko enpresek, kontratuak zuzenean edo zeharka sortutako gorabehera guztietarako, edozein ordenatako Espainiako auzitegi eta epaitegien eskumenei men egingo dietela agertzen duen berariazko adierazpena aurkeztu behar dute, eta behar izanez gero, uko egingo diote lizitatzaileari dagokion atzerriko foru jurisdikzionalari.

4. Jakinarazpenak jasotzeko hautatutako bitartekoa, agiri honen **IV. eranskineko** ereduaren arabera.

2. gutun-azala. «BALIO-IRITZIAREN ARABERA KUANTIFIKATUTAKO

IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA»

Ez da aplikagarria

3. gutun-azala. «FORMULAK ERABILIZ EBALUA DAITEZKEEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA»

Lizitatzaileek formulen bidez ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa aurkeztu beharko dute baldintza-agiri honen **V. eranskinean** atxikitako ereduko formulei jarraikiz.

-
- Memoria edo makinen laburpena/fitxa teknikoa

Adierazi produktuak

- Gaitasun energetikoa
- Nola antolatuko den makinen barnealdea (zer produktu eskainiko dituzten).
- Harremanetarako telefonoa eta zerbitzuaren arduradunaren identifikazioa larrialdietarako, zerbitzuaren beharretarako.

14. ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Adjudikazio-irizpideak, dagokien ponderazioarekin adierazita, **Karatularen 12. puntuan** zehaztutakoak izango dira.

15. EBALUAZIO-BATZORDEA

Kontratazio-organoak ebaluazio-batzorde baten laguntza jasoko du. ebaluazio-batzorde hori **Karatularen 13. puntuan** adierazitako kideek osatuko dute.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio-batzordeak aurretiaz balioetsiko du agindutako moduan eta garaian aurkeztutako 1. gutun-azaleko («Aurretiko betekizunak bete izanari buruzko dokumentazioa») dokumentazioa. Zuzentzeko moduko akatsak antzemango balira aurkeztutako dokumentazioan, erakunde kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea emango dio lizitatzaileari horiek zuzentzeko.

Jarraian, 2. gutun-azala irekiko da («Balio-iritziaren araberako

kuantifikazioa izango duten irizpideei buruzko dokumentazioa»), jasotako dokumentazioaren azterketa eta balorazioa egite aldera.

Balio-iritziaren araberako kuantifikazioa izango duten irizpideei ponderazio handiagoa ematen bazaie formulak erabili bidez ebalua daitezkeen irizpideei baino, balio-iritziaren araberako kuantifikazioa izango duten irizpideak **Karatularen 14. puntuan** adierazten diren kideek osatutako Batzordeari egokituko zaizkio.

2. gutun-azaleko dokumentazioa aztertu eta baloratu ondoren, 3. gutun-azala irekiko da («Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa»).

3. gutun-azala ireki aurretik («Formulak erabiliz ebalua daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa»), balio-iritziaren bidez kuantifikatutako irizpideei buruzko dokumentazioaren balioespena emango zaie lizitatzaileei.

Hori egin ondoren, 3. gutun-azaleko dokumentazioa irekiko da («Formulen bidez ebaluatzen diren irizpideei buruzko dokumentazioa»), hori aztertu eta balioesteko.

Edonola ere, 3. gutun-azala («Formulen bidez ebaluatzen diren irizpideei buruzko dokumentazioa») ekitaldi publikoan irekiko dira, salbu eta, **Karatulako 11.1. puntuarekin** bat, proposamenak aurkezteko baliabide elektronikoak erabiltzen badira.

3. gutun-azala («Formulen bidez ebaluatu daitezkeen irizpideei buruzko dokumentazioa») ekitaldi publikoan irekitzen bada, lizitatzaile guztiei jakinaraziko zaizkie irekitzeko data, ordua eta lekua. Halaber, informazio hori erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean argitaratuko da, gutxienez 48 ordu lehenago.

Ebaluazio-batzordeak baztertu egingo ditu 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan ezarritako kausaren batean dauden proposamenak, eta aurkeztutako proposamenen zerrenda igorriko dio kontratazio-organoari, **Karatularen 12. puntuan** ezarritako adjudikazio-irizpideei jarraikiz handienetik txikienera sailkatuta. Era berean, eskaintza onena identifikatuko du.

Proposamena egin aurretik, behar adina txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Karatularen 12. puntuan adierazitako parametroen arabera, puntuazio

onena lortu duen lizitatzailearen eskaintza bereziki baxua dela uste bada, ebaluazio-batzordeak SPKLren 149. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko dio, lizitatzaileak dagokion justifikazioa egin dezan.

Adjudikazio-proposamenak ez du inolako eskubiderik sorrarazten proposatutako lizitatzailearen alde, erakunde kontratatzailearen aurka. Dena den, kontratazio-organoak ez badu kontratua egindako proposamenaren arabera adjudikatzen, bere erabakia arrazoitu egin beharko du.

17. KONTRATUA ADJUDIKATZEA

Arau orokor gisa, kontratazio-organoak ebaluazio-batzordearen proposamenari jarraitu beharko dio adjudikazioduna hautatzeko. Hala egiten ez badu, kontratazio-organoak arrazoitu egin beharko du proposamenetik aldentzeko hartutako erabakia, eta, hala badagokio, proposamenen behin betiko sailkapena egin beharko du.

Kontratazio-organoak ebaluazio-batzordearen proposamena onartzen duenean, erakunde kontratatzaileak eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileari eskatuko dio dokumentazio hau aurkezteko, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen duen hurrengo egunetik hasita:

1. Eskaintzak aurkezteko azken egunean, erakunde kontratatzailearekin kontratua egiteko legez ezarritako baldintza guztiak eta Agiri honen 12. klausulan eskatutako kontratatzeko ahalmenari, kaudimenari eta debekuak ez izateari buruzko eskakizun guztiak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazioa, ondoren adierazitako moduan.

   Proposamena aldi baterako elkartuta parte hartu nahi duen enpresaburu talde batek egin badu, aipatutako dokumentazioak proposamenean parte hartuko duten enpresa guztiei buruzkoa izan behar du.

   (i) Lizitatzailearen nortasunaren eta jarduteko gaitasunaren egiaztagiriak eta, hala badagokio, haren ordezkariarenak:

   - Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna frogatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira: eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo fundazio-egintza eta, bertan, haien jarduera arautzen duten arauak,

dagokien erregistro publikoan inskribatuak, kasuan kasuko pertsona juridiko motaren arabera.

- Europar Batasuneko estatuetako enpresaburu ez-espainiarren jarduteko gaitasuna frogatzeko, agiri hauek aurkeztu beharko dira: ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagokien erregistroko inskripzioa, edo zinpeko aitorpen edo ziurtagiri bat, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenen arabera.

- Gainerako enpresaburu atzerritarren jarduteko gaitasuna frogatzeko, berriz, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia-misio iraunkorrak emandako txostena edo enpresak egoitza duen lurralde esparruko kontsuletxeko bulegoak emandako txostena aurkeztuko da. Txosten horren bitartez, justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango Administrazioarekiko kontratazioetan eta , halaber, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna frogatzeko, Nortasun Agiri Nazionala edo haien estatuko agiri baliokidea aurkeztu beharko da.

- Beste baten izenean agertzen direnek edo proposamenak sinatzen dituztenek Nortasun Agiri Nazionalaren kopia aurkeztu beharko dute, bai eta horretarako behar besteko ahalordea ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan jasota egon beharko du, Merkataritza Erregistroaren araudiaren 94. artikuluan aurreikusitakoaren arabera hala eskatzen denean, edo, hala badagokio, kasuan kasuko Erregistro Publikoan, pertsona juridiko motaren arabera.

Agiri horien guztien jatorrizko bertsioa edo behar bezala konpultsatutako kopia aurkeztu beharko da.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofizialean edo Espainiako Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta dauden lizitatzaileek erregistroaren ardura duen letraduak emandako indarreko inskripzio-

ziurtagiriaren kopia aurkez dezakete, (i) zenbaki honetan aipatutako dokumentazioaren ordez. Inskripzio-ziurtagiriarekin batera, lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du, eta, haren bidez, dokumentuan azaldutako egoerak ez direla aldatu adieraziko da.

(ii) Agiri honen 12. klausulan eskatutako kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren eta gaitasun tekniko eta profesionalaren egiaztagiria.

- Kaudimen ekonomiko eta finantzarioa. Hala badagokio, lizitatzailearen urteko negozio-bolumena honako hauen bidez egiaztatuko da:

  - Merkataritza Erregistroan jasotako eta onartutako urteko kontuen bidez, enpresaburua erregistro horretan inskribatuta badago, eta, bestela, kasuan-kasuan dagokion erregistro ofizialean aurkeztutakoen bidez. Merkataritza Erregistroan inskribatuta ez dauden banakako enpresaburuek Merkataritza Erregistroak legeztatutako inbentario- eta urteko kontu-liburuen bidez egiaztatuko dute urteko negozio-bolumena.

  - Lizitatzaileak sinatutako erantzukizunpeko adierazpena, lizitatzailearen negozio-bolumena adierazita.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala. Hala badagokio, eskatutako gaitasuna azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lanen zerrenda baten bidez egiaztatuko da, eta, horretan, zerbitzu eta lan horien zenbatekoa, data eta hartzaile publiko edo pribatua zein izan den adieraziko da. Hartzailea sektore publikoko erakunde bat bada, organo eskudunak jaulkitako edo ontzat emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko dira egindako zerbitzuak edo lanak; hartzailea subjektu pribatu bat bada, hark emandako ziurtagiriaren bitartez eta, halakorik ezean, lizitatzailearen adierazpen baten bidez, haren eskuetan dauden eta zerbitzua eman duela egiaztatzen duten agiriekin batera.

  Kontratista enpresa sortu berria bada (hau da, bost urte baino gutxiagoko antzinatasuna badu), haren gaitasun teknikoa SPKLren 90.1 artikuluaren b)-i) letretan

adierazitako bitarteko baten edo gehiagoren bidez egiaztatuko da, baina artikulu horren a) letran zerbitzuen kopuru jakin bat gauzatzeari buruz ezarritakoa ezingo da inola ere aplikatu.

- Sailkapena. Hala badagokio, sailkapena organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatuko da, eta, horrekin batera, lizitatzailearen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko da, sailkapena indarrean dagoela eta dagokion ziurtagirian islatutako egoerak ez direla aldatu azalduz. Adjudikaziodun gertatuz gero, hori guztia berriro adierazi beharko du lizitatzaileak, kontratua formalizatzeko dokumentuan.

  Ziurtagiri horrek egiaztatu beharko du lizitatzailea zehaztutako taldean eta azpitaldean sailkatuta dagoela, aipatutako kategoria berean edo handiagoan.

  Ziurtagiri horrek, Klausula honen 1. zenbakian (i) aipatutako inguruabarrak ere egiaztatu ahal izango ditu, hau da, lizitatzailearen eta, hala badagokio, haren ordezkariaren nortasuna eta jarduteko gaitasuna.

(iii) Lizitatzaileak SPKLren 71. artikuluan ezarritako kontratatzeko debekurik ez duela egiaztatzen duen lekukotza judiziala edo administrazio-ziurtagiria.

Agintaritza eskudunak ezin badu aipatutako agiria eman, administrazio-agintaritza, notario publiko edo erakunde profesional kualifikatu baten aurrean emandako erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu ahal izango da.

(iv) Hala badagokio, **Karatularen 10. puntuan** adierazitako berariazko eskakizunak bete izanaren ziurtagiriak.

2. Hala badagokio, kontratuari atxikitzeko hitzemandako giza baliabideak eta baliabide materialak benetan dituela egiaztatzen duen agiria.

(i) Kontratua gauzatzeko atxikitako giza baliabideei dagokienez, hala badagokio, hautatutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratua egikaritzeari atxikitako lantaldeko kide guztien izenezko identifikazioa, eskakizunak betetzen direla egiaztatzen duten *curriculum vitae*ko fitxekin batera:

  1. Titulazio akademiko ofiziala.

  2. Dagokion esparruan duen esperientzia.

  3. Hala badagokio, erakunde kontratatzaileak eskatutako beste edozein alderdi.

- Giza baliabide horiek guztiak benetan dituela egiaztatzen duen agiria.

Datuen babeserako araudi aplikagarrian ezarritakoari jarraikiz eta giza baliabideei buruzko aipatutako dokumentazioan jasotako informazio mota kontuan hartuta, hauxe ohartarazten dugu: (i) informazio hori jasotzeak eta erabiltzeak datuak tratatzea dakar, lizitatzailearen eskutik, tratamenduaren arduradun gisa; eta (ii) informazioa erakunde kontratugileari emateak, klausula honetan aurreikusitakoa betez, datuak jakinaraztea dakar, lizitatzailearen eskutik, lagatzaile gisa.

Ondore horietarako, hautatutako lizitatzaileak datuen babeserako araudi aplikagarrian xedatutakoaren arabera dagozkion betebeharrak bete beharko ditu, aurreko lerrokadan adierazitako datuak tratatzeari eta jakinarazteari dagokienez. Zehazki, tratamenduaren arduradun gisa bestelako obligazioak ere edukitzea eragotzi gabe, hautatutako lizitatzaileak, erantzule bakarra izanda, interesdunen onarpen informatua lortu beharko du, aurretik aipatutako datuen jakinarazpena egin ahal izateko. Alderdi hori behar bezala frogatu beharko du lizitatzaileak erakunde kontratugilearen aurrean, hala eskatzen zaionean.

(ii) Kontratua egikaritzeari, hala badagokio, atxikitako baliabide materialei dagokienez, hautatutako lizitatzaileak dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

- Kontratua egikaritzeari atxikitako baliabide materialen identifikazioa, eskakizunak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentazioarekin batera:

- Baliabide material horiek guztiak benetan dituela egiaztatzen duen agiria.

Entitate kontratatzaileak beretzat gordetzen du eskubide hau: lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen egiaztatze-lan guztiak egin ahal izatea eta beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak eskatzea.

3. Agiri honen 11. klausulan aurreikusitako behin betiko bermea eratu izanaren egiaztagiria.

4. Hala badagokio, notario-akta bat, aitorpen batekin, eskatutako kaudimena eta/edo giza baliabideak jartzeko konpromisoa egiaztatzeko lizitatzaileak beste erakunde batzuen kaudimenean eta bitartekoetan oinarritu nahi duen kasuan. Akta hori **II. eranskinean** jasotako ereduaren arabera egingo da.

5. Hala badagokio, aldi baterako enpresa-elkartea legez eratu dela egiaztatzen duen agiria. Aldi baterako elkarte horrek ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko du, kontratutik eratorritako eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalmena duena.

6. Kontratu erreserbatua bada, hauek egiaztatu beharko dira:

- Gizarteratze-enpresaren izaera: enpresen erregistroa.
- Gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziaren izaera: enplegu-zentro berezi gisa inskribatu izanaren erregistroa + kideen % 50ren baino gehiagoren irabazi-asmorik eza + berriz inbertitzeko konpromisoa

Entitate kontratatzaileak beretzat gordetzen du eskubide hau: lizitatzaileek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela egiaztatzeko egokitzat jotzen dituen egiaztatze-lan guztiak egin ahal izatea eta beharrezkotzat jotzen dituen agiri guztiak eskatzea.

Zuzentzeko moduko akatsak atzemango balira aurkeztutako dokumentazioan, erakunde kontratatzaileak hiru egun naturaleko epea eman ahalko dio lizitatzaileari horiek zuzentzeko.

Dokumentazioaren errekerimendua adierazitako epean beteko ez balitz edo aurkeztutako dokumentazioak ezin zuzenduzko akatsak edo hutsak izango balitu, ulertuko da lizitatzaileak eskaintza baztertu duela. Hala, zigor gisa,

lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren ehuneko 3ko zenbatekoa eskatuko zaio (BEZa gabe), eta hurrengo lizitatzailearen dokumentazio berbera bilduko da, eskaintzen sailkapenaren ordenari jarraituz.

Kontratazio-organoak aipatutako agiriak jaso ondorengo bost egun baliodunen barruan adjudikatuko du kontratua, eta gehienez ere 2 hilabeteko epean, proposamenak ireki ondoko egunetik kontatzen hasita. Adjudikazioa kontratazio-organoak erabakiko du arrazoietan oinarritutako ebazpenaren bidez, eta hautagaiei eta lizitatzaileei jakinaraziko zaie, horiek zehaztutako jakinarazpenak jasotzeko bitartekoaren bidez. Halaber, erakunde kontratugilearen kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da 15 egun naturaleko epean.

18. KONTRATUA BURUTZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratua formalizatzean burutuko da.

Kontratua agiri pribatu batean formalizatuko da, eta hori lizitazioaren kondizioetara egokituko da erabat. Kontratua formalizatzeko agirian ezingo da inola ere kontratazio-kondizioak aldatzea eragingo duen klausularik sartu.

Nolanahi ere, adjudikaziodunak kontratua eskritura publiko bihurtzeko eskaera egin ahal izango du; kasu horretan, haren kontura izango dira eragiketa horrek sortutako gastuak.

Formalizatzeko, lizitatzaileei eta hautagaiei adjudikazioari buruzko jakinarazpena igorri zitzaienetik hamabost egun baliodun igaro beharko dira; lehenago ezingo da formalizatu.

Kontratuaren formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, erakunde kontratatzailearen kontratatzailearen profilean argitaratuko da, kontratua burutzen denetik gehienez hamabost egun naturaleko epean.

Adjudikaziodunari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratua adierazitako epean formalizatzen ez bada, zigor gisa, lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren % 3ko zenbatekoa eskatuko zaio (BEZa gabe), eta hori beteko da, lehenik eta behin, behin betiko bermearen kontra, SPKLren 71. artikuluko 2. apartatuko b) letran ezarritakoa ezertan eragotzi gabe. Kasu horretan, kontratua hurrengo lizitatzaileari adjudikatuko zaio, eskaintzen sailkapenari jarraituz, Agiri honen 17. klausulan eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren; hamar egun balioduneko epea emango

zaio lizitatzaileari dokumentazio hori aurkezteko.

19. KONTRATUAREN ARDURADUNA

Kontratazio-organoak kontratuaren arduraduna izendatuko du. Arduradun horrek, erakunde kontratatzaileak adjudikatzen dizkion eskumenen esparruan, kontratua nola gauzatzen den ikuskatzeko, erabakiak hartzeko eta beharrezko jarraibideak agintzeko ardura izango du, hitzartutako prestazioak behar bezala ematen direla bermatzeko.

Kontratuaren arduraduna pertsona fisiko edo juridiko bat izan daiteke, erakunde kontratatzailearekin lotura duena edo ez.

Kontratistak nahitaez bete beharko ditu kontratuaren arduradunak emandako jarraibideak.

20. KONTRATUA GAUZATZEA

Kontratua honako baldintza hauei jarraikiz gauzatuko da:

- Kontratistak kontratua gauzatuko du bere baldintzei, Administrazio-klausula Partikularren Agiri honetan eta Karatulan xedatutakoari eta kontratistak aurkeztutako eskaintzan ezarritakoari jarraituz, baita hori interpretatuta erakunde kontratatzaileak kontratistari ematen dizkion jarraibideei jarraituz ere.

- Kontratatua lan-arloan indarrean diren legezko, arauzko edo ohiko xedapenei lotuta dago, bai eta Gizarte Segurantzakoei eta laneko segurtasun eta osasunekoei ere.

  Testuinguru horretan, balio-iritziaren bidez kuantifikatutako irizpideei buruzko dokumentazioa biltzen duen 2. gutun-azalean, lizitatzaileek adierazi beharko dute zer hitzarmen kolektibo aplikatuko zaien kontratuaren xede den jarduera gauzatuko duten langileei, adjudikazioa lortzen badute. Kontratistak kontratu honen xede den jarduera egingo duten langileei aplikatzeko modukotzat jotzen duen hitzarmen kolektiboaren informazioa adjudikazioaren ebazpenean agertuko da eta kontratatzailearen profilean argitaratuko da.

  Horrez gain, kontratistak eskatzen zaion informazio guztia emateko obligazioa izango du, kontratua adjudikatu eta gero langileei benetan aplikatuko zaizkien lan-baldintzei dagokienez.

Kontratistak aplikatuko den sektoreko hitzarmen kolektiboan adierazitako soldata ordaindu beharko du kontratuaren egikaritze-aldi osoan, langile bakoitzari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta inola ere ezingo da hori baino soldata baxuagorik ordaindu.

Atal honetan xedatutakoa gauzatze-baldintza berezia eta funtsezko obligazioa da SPKLren 211.f) artikuluan aurreikusitako ondoreetarako, eta, hortaz, ez-betetze oro kontratua indargabetzeko kausa da, erakunde kontratugileak hala erabakitzen badu.

- Kontratistak arriskua bere gain hartuz jardungo du kontratua gauzatzerakoan.

- Erakunde kontratatzaileak kontratu-betebeharren betetze zintzoa eta kontratuaren gauzatze egokia edozein unetan kontrola, egiazta eta gainbegira ditzake, edozein bitarteko erabilita.

  Xede horretarako, erakunde kontratatzaileak, kontratuko betebeharrak eta lan-garapenaren kalitatea modu egokian betetzen direla egiaztatzeko edo ikuskapena egiteko, beharrezkotzat jotzen duen kanpo-laguntza eskatu ahal izango du.

  Kontratistak erakunde kontratugileari berak eskatzen dizkion zerbitzuekin loturiko datu guztiak emango dizkio, beharrezkoa den laguntza guztia emango dio, inolako kostu gehigarririk gabe, eta kontratatutako zerbitzuekin lotutako lan- eta administrazio-arloko nahiz bestelako agiriak eskuratzea ahalbidetuko dio.

  Kontratistak ezin izango ditu erakunde kontratatzaileak egindako ikuskatze- eta kontrol-lanak oztopatu.

  Hala eta guztiz ere, ez-betetzerik edo arazorik aurkituko balitz, erakunde kontratugileak berehala jakinaraziko dio kontratuaren arduradunari, eta hark izango du antolatzeko, ikuskatzeko eta, dagokionean, zehatzeko azken erabakia, zerbitzua ematen duten langileei dagokienez.

- Langile guztiak kontratistaren mendean egongo dira esklusiboki, hura bere enplegatzaile izaerari dagozkion eskubideen eta betebeharren jabe bakarra dela, eta erakunde kontratugileari ezingo zaio aipatu lan-harremanetatik edo gainerako betebeharretatik eratorritako ezein erreklamazio egin.

Ondorio horietarako, kontratistak ondorengo betebeharrak hartuko ditu bere gain:

1. Kontratistari soilik dagokio langileak aukeratzea; langile horiek agirietan eskatutako titulazio- eta esperientzia-betekizunak —halakorik balego— izan beharko dituzte, eta kontratua gauzatzeari atxikitako lantaldearen parte izango dira, eta horrek ez du eragotziko erakunde kontratugileak betekizun horiek betetzen direla egiaztatu ahal izatea.

2. Kontratistak lantaldea egonkorra izateko eta, aldaketarik gertatuz gero, bakanak eta arrazoituak izateko ahalegina egingo du, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko, eta erakunde kontratugileari aldaketa ororen berri emango dio.

3. Kontratistak kontratua gauzatuko duen lantaldearen gaineko zuzendaritza ahalmena, enpresa guztiei dagokiena, modu erreal, eraginkor eta etengabean gauzatzeko betebeharra bere gain hartuko du.

   Bereziki, soldaten negoziazioa eta ordainketa, baimenak, lizentziak eta oporren onarpena, baja edo hutsune kasuetan langileen ordezkapena, Gizarte Segurantzaren arloko legezko betebeharrak —dagokionean, kotizazioak eta prestazioak ordaintzea barne—, lan-arriskuen prebentzioaren arloko betebeharrak, diziplina-ahala erabiltzea, baita langilearen eta enplegatzailearen arteko kontratuzko harremanetik eratortzen diren eskubide eta betebehar guztiak ere.

4. Kontratistak kontratua gauzatzera atxikitako langileek beren lanean agirietan kontratuaren xede gisa mugatutako jarduerari dagozkion funtzioak besterik ez dituztela beteko zainduko du, bereziki.

5. Kontratistak bere langile taldeko kidea den koordinatzaile tekniko edo arduradun bat, gutxienez, izendatu beharko du, eta hark ondoko betebeharrak izango ditu:

   a) Erakunde kontratugilearen aurrean kontratistaren mintzakide gisa jardutea, batetik, kontratistaren eta kontratua gauzatzera atxikitako lantaldeko kideen eta, bestetik, erakunde kontratugilearen arteko komunikazioa

bideratuz, kontratua gauzatzetik eratorritako auzi guztietan.

b) Kontratua gauzatzeaz arduratuko diren langileen artean banatzea lana, eta langile horiei kontratatutako zerbitzua emateko beharrezkoak diren aginduak eta jarraibideak ematea.

c) Lantaldeak esleitu zaizkion funtzioak ondo betetzen dituela gainbegiratzea, baita langile horiek lanera joaten direla kontrolatzea ere.

d) Kontratua gauzatzera atxikitako langileen oporraldia antolatzea, horretarako kontratista erakunde kontratugilearekin ondo koordinatuz, zerbitzuaren funtzionamendu egokia ez eragozteko.

e) Erakunde kontratugileari kontratua gauzatzeko atxikitako lantaldearen osaeran egiten diren aldaketak, noizbehinkakoak edo iraunkorrak, jakinaraztea.

Kontratista izango da erantzule bakarra, edozein ezbehar edo erreklamazio (judizial edo estrajudizial) gertatzen bada, kontratua gauzatzeko lanean ari diren langileekin lotuta, bai bere langileekin bai azpikontratatuta dituenekin lotuta, eta erakunde kontratatzaileak ez du hartuko bere gain kontratistak zuzenean edo zeharka hartzen duen inongo erantzukizunik, lanari (segurtasuna, higienea eta laneko osasuna barne), gizarte-segurantzari edo zergei dagokienez. Era berean, kontratista izango da erantzule bakarra kontratua gauzatzean sor litezkeen ezbeharren aurrean.

- Kontratista behartuta egongo da kontratua bere lokal edo instalazioetan gauzatzera, salbu eta karatulan eta/edo preskripzio teknikoen agirian adierazten bada zerbitzuak erakunde kontratatzailearen lokal edo instalazioetan eman behar direla.

  Kasu horretan, erakunde kontratugileak bere langileek erabiltzen dituzten espazioetatik bereizitako espazioak utziko ditu kontratistaren esku, eta kontratistaren lana izango da kontratua gauzatzeko atxikitako langileek esleitutako kokapena errespetatzen dutela zaintzea.

  Kontratuaren xedearen izaera dela eta, kontratistak erakunde kontratugilearen lokal edo instalazioetan eman behar badu zerbitzua,

kontratistak, zerbitzua ematen hasi aurretik, kontratua gauzatzeko atxikitako langileak Gizarte Segurantzan afiliatuta eta alta-egoeran daudela egiaztatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu.

- Kontratistak, klausula honetan bere gain hartutako betebeharrak urratzearen ondorioz, erakunde kontratugileari kopuru batzuk ordaintzeko zigorra ezarriko baliote kontratistarekiko solidaritateagatik, erakunde kontratugileak ordaindutako kopuruak ordainaraziko dizkio kontratistari. Horretarako, erakunde kontratugileek egoki eta komenigarria den edozein akzio, administratibo edo judizial, abiatu ahal izango dituzte, ordaindutako kopuru guztiak berreskuratu arte.

- Hala badagokio, kontratistak **Karatularen 15. puntuan** adierazitako berariazko kondizioak bete beharko ditu.

21. FUNTSEZKO KONTRATU-BETEBEHARRAK

Oinarrizko kontratu-betebeharrak izango dira honako hauek:

- Kontratuaren betebehar nagusia betetzea, klausuletan, Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian ezarritakoari zorrotz jarraituz.

- Lan-arloan, gizarte-segurantzaren arloan eta laneko segurtasun- eta osasun-arloan aplikagarriak diren eta indarrean dauden legezko, arauzko eta ohiko xedapenak betetzea, agiri honen 20. klausulako bigarren marratxoan jasotako baldintzetan. Testuinguru horretan, kontratistak aplikatuko den hitzarmen kolektiboan adierazitako soldata ordaindu beharko du kontratuaren gauzatze-aldi osoan, langile bakoitzari dagokion lanbide-kategoriaren arabera, eta inola ere ezingo da hori baino soldata baxuagorik ordaindu.

- Kontratistaren eskaintzan hitzemandako giza baliabideak eta/edo baliabide materialak jartzea kontratua gauzatzeko.

- Bere jarduera egiteko beharrezkoak dituen lizentziak eta baimenak eskuratzea, bere kontura.

- Zerbitzuak unean-unean indarrean dagoen sektoreko araudiak xedatzen duena aplikatuta emango dira. Horretarako, kontratistak eta kontratistaren pertsonalak unean-unean indarrean dagoen araudiak

eskatzen dituen betebeharretako edozein betetzen dituztela egiaztatzen duten (halakorik bada) egiaztagiri guztiak izan beharko dituzte.

- Behin betiko bermea mantentzea eta berriz ezartzea.

- Gutxienez kontratua gauzatu bitartean, kontratistak Agiri honen 25. klausulan eskatutako estaldurak eta aseguruak kontratatzea edo horiei eustea.

- Kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren lanen ondorioz hirugarrenei sortutako kalte eta galera guztien ordaina ematea.

- Ordainketa gehigarririk jaso gabe, kontratua egoki garatzeko eta betetzeko erakunde kontratugilearen ustez beharrezkoak diren zerbitzuak ematea; hala nola, lan- edota informazio- bileretara joatea. Betebehar hori kontratua amaitu arte egongo da indarrean.

- Greba egiten den kasuetan, zerbitzuak betetzea. Aipatutako zerbitzuak bermatzen ez badira, erakunde kontratugileak horiek betetzeko beharrezko kontratuak jar ditzake martxan, eta fakturaziotik kenduko ditu horri dagozkion zenbatekoak.

  Grebak dirauen bitartean, benetan eman diren zerbitzuen prezioa bakarrik ordainduko da.

- Langileak aldatzea, baldin eta ez badute beren lana beharrezko arduraz eta eraginkortasunez egiten, edo ez badute gaitasunik, kontu gutxi badute beren zerbitzuak egitean, edo kontratuaren martxa onerako ekintza kaltegarriak egiten badituzte. Hogeita lau orduko gehieneko epean egitea hori, erakunde kontratugileak horretarako egiten duen eskaeratik zenbatzen hasita. Langileen ordezkapenek ez diote ekarriko inongo erantzukizunik erakunde kontratugileari, neurriak eragindako langileek eta kontratistak dituzten harremanei dagokienez.

  Langile horiek dagokien baimena dutela egiaztatu beharko dute, jardunean hasi aurretik.

- Langileak gaixotasun-bajengatik edo opor, baimen, lizentzia, ezbehar eta beste arrazoi batzuengatik sortutako hutsuneak betetzeko ordezten direnean, kontratatutako zerbitzuak benetan eta modu

iraunkorrean ematen direla bermatzea. Gehienez hogeita lau orduko epean egin behar da hori.

- Datuen babesaren arloan dagozkion betebeharrak betetzea eta hori behar bezala egiaztatzea, agiri honetan, Karatulan eta/edo arloko legeria aplikagarrian ezarritakoari jarraikiz.

- Hala badagokio, **Karatularen 16. puntuan** adierazitako berariazko betebeharrak betetzea.

Klausula honetan eta **Karatularen 16. puntuan** adierazitako betebeharrak kontratuzkoak eta funtsezkoak izango dira, SPKLko 211. f) artikuluan aurreikusitakoaren arabera. Beraz, baldintza horiek bete ezean, kontratua suntsiaraz dezake erakunde kontratugileak.

22. DATU PERTSONALEN BABESA

Kontratistak bete beharko ditu 2016/679 (EB) Erregelamenduan, 2016ko apirilaren 27koan, Europako Parlamentuarenean eta Kontseiluarenean, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoan (aurrerantzean, DBEO), eta datuen babesaren arloko gainerako arau aplikagarrietan ezarritako betebeharrak, kontratuaren indarraldian, bere kontura eta berak erabakita egiten dituen jardueren testuinguruan datu pertsonalak tratatzen dituenean, tratamendu horren erantzule gisa.

Aurrez aipatutako betebeharrak ez du eragotziko, hala badagokio, **Karatularen 17. puntuan** berariaz ezarritakoa, erakunde kontratatzailearen datu pertsonalen balizko tratamenduarekin lotuta.

23. KONFIDENTZIALTASUNA ETA SEKRETU-BETEBEHARRA

Informazio publikoa eskuratzearen arloko indarreko legerian ezarritakoa eta adjudikazioaren publizitateari eta hautagaiei zein lizitatzaileei eman behar zaien informazioari buruzko SPKLren xedapenak eragotzi gabe, erakunde kontratatzaileak ezingo du lizitatzaileek emandako informazioa zabaldu, eskaintza aurkeztean konfidentzialtzat jo badute. Konfidentzialtasunak honako hauei eragiten die, besteak beste: sekretu tekniko eta komertzialei, eskaintzen alderdi konfidentzialei eta lehia (bai lizitazio-prozedura honetan bai etorkizunekoetan) faltsutzeko erabil daitezkeen datu guztiei.

Kontratistak errespetatu egin beharko du kontratuaren egikaritzea dela-eta eskuratutako informazioaren izaera konfidentziala, kontratuan edo agirietan halako izaera eman bazaie, edo berezko izaeraren ondorioz era horretako tratamendua jaso behar badute.

Konfidentzialtasun-betebehar hori **Karatularen 18. puntuan** adierazitako epean egongo da indarrean.

24. ERANTZUKIZUNA

Kontratistak berak hartu beharko du egiten dituen lanen eta ematen dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, eta, zer edo zer egin gabe utzi duelako, edo akatsak direla-eta, metodo traketsak direla-eta, edo amaiera txarra dela-eta erakunde kontratugileari edo hirugarrenei beste ondoriorik eragin bazaie, erantzukizuna kontratistarena izango da.

Kontratistak izango du kontratua gauzatzeko egin beharreko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte-galera guztiengatik kalte-ordaina emateko betebeharra.

25. ASEGURUAK

Kontratistak **Karatularen 20. puntuan** adierazitako aseguruak kontratatuko ditu kontratuak irauten duen epe osorako, bere kontura, eta bertan zehaztutako kondizioetan.

26. JABETZA INTELEKTUALA ETA/EDO INDUSTRIALA

Kontratista behartuta dago iturri baimenduetatik eta bere kontura eskuratzera lizentziak eta eskubideak, ekipamendu informatikoak (hardwarea eta softwarea) edo beste ekipamendu eta/edo bitarteko osagarri batzuk erabili eta/edo ustiatu ahal izateko, agiri honetan eta preskripzio teknikoen agirian ezarritakoaren arabera, horiek atxiki, jarri eta/edo mantendu behar baditu baldintza-agirion xede diren zerbitzuak emateko.

Halaber, SPKLren 308.1 artikuluan xedatutakoa aplikatuko zaio kontratazio honi. Horrela, kontratuaren xede diren zerbitzuak ematearen emaitzaren gaineko jabetza, oso-osorik edo fase guztietan, erakunde kontratatzailearena izango da esklusiboki. Hori guztia, jabetza intelektualari buruzko legearen testu bategina onartzen duen Legegintzako

Errege Dekretuan (apirilaren 12ko 1/1996) eta/edo Patenteen Legean (uztailaren 24ko 24/2015) xedatutakoaren arabera, kontratistari egokitu dakizkiokeen egilearen eskubide moralak eta/edo asmatzaile gisa aitortua izateko eskubidea alde batera utzi gabe, eta horiek behar bezala aintzat hartu beharko ditu erakunde kontratatzaileak.

Ondorioz, eta, hala badagokio, **karatularen 19. puntuan** berariaz ezarritakoa eragotzi gabe, kontratistak erakunde kontratugileari bermatu beharko dio kontratuaren xede diren zerbitzuen emaitzaren bakezko erabilera. Halaber, hala badagokio, behartuta egongo da horren parte diren elementu guztien lizentziak eta eskubideak modu legitimoan eta baimendutako iturrietatik lortzera, eta, horiek ematean, adieraziko du ez dagoela kontratazio honen arabera erakunde kontratatzaileari dagozkion eskubideen kontrako inolako konpromisorik edo kargarik.

Edonola ere, kontratista erantzulea izango da kontratuarekin zerikusirik ez duten hirugarrenek, jabetza intelektualari eta/edo industrialari dagokienez, hauekin lotuta egiten dituzten erreklamazioez:

- Jabetza industrialaren edo intelektualaren eskubideen bidez babestutako materialak, erremintak eta tresnak erabiltzea zerbitzuak emateko.

- Kontratazioaren xede diren zerbitzuen emaitza eta/edo emaitza horren parte den edozein elementu.

Aurrez aipatutakoa kontuan hartuta, kontratistak kalte-galerak ordaindu beharko dizkio erakunde kontratatzaileari, aipatutako arrazoiengatik egindako erreklamazioen ondorioz sortu badira.

27. ZIGORRAK

a) Berandutzeak eragindako zigorrak.

Kontratista, berari egotz dakizkiokeen kausengatik, Agiri honetan eta/edo Karatulan jasotako epeetan atzeratzen bada, erakunde kontratatzaileak bi aukera hauetako edozein hauta dezake: kontratua suntsiaraztea, Agiri honen 33. Klausulako baldintzetan, edo kontratua gauzatzen jarraitzea. Azken kasu horretan, **Karatularen 21. puntuan** adierazitako zigorrak sortuko dira erakunde kontratatzailearen alde, betiere kalte-galerengatik dagozkion ordainez gain.

Kontratista berandutze-egoeran dagoela jakinarazteko, erakunde kontratatzaileak ez dauka aldez aurretik oharpenik egin beharrik.

b) **Kontratutako prestazioak gaizki ematearen edo kontratuan jasotako beste edozein baldintza ez betetzearen ondoriozko zigorrak.**

Kontratistak, berari egotz dakizkiokeen kausengatik, kontratatutako prestazioak gaizki eman dituenean edo kontratuan jasotako beste edozein baldintza bete ez duenean, erakunde kontratatzaileak bi aukera hauetako edozein hauta dezake: kontratua etetea, Agiri honen 33. klausulako baldintzetan, edo kontratua gauzatzen jarraitzea. Azken kasu horretan, **Karatularen 21. puntuan** adierazitako zigorrak sortuko dira erakunde kontratatzailearen alde, betiere kalte-galerengatik dagozkion ordainez gain.

Zigorrak gauzatzeko, kenkariak egingo dira kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharreko kopuruetan eta, hori ezinezkoa bada, bermean, eta dagokion kopurua erreklamatuko da, zigor horiek bermea baino handiagoak badira.

Nolanahi ere, kontratua etetea edota gauzatzen jarraitzea erabakita ere, erakunde kontratatzaileak, alde bakarretik, horrekin egoki iritzitako denboran jarraitzea erabaki ahal izango du, horretarako bere baliabideak erabilita edo hirugarren batzuk kontratatuta; jarraipen horren kostuak kontratistaren kontura izango dira, klausula honetan kalte-galerengatik eta gainerako eraginengatik aurreikusitako kalte-ordainak ordaintzea eragotzi gabe.

28. KONTRATUA LAGATZEA

SPKLren 98. artikuluko kontratistaren ondorengotza-kasuak alde batera utzita, kontratuaren aldaketa subjektiboa kontratu-lagapenaren bidez baino ezingo da egin, klausula honetan ezarritako mugen barruan, betiere aukera hori berariaz aurreikusita badago **Karatularen 22. puntuan**.

Lagatzeko, SPKLren 214.2 artikuluko a), b), c) eta d) letretan eskatutako baldintzak bete beharko dira; hau da:

a) Kontratazio-organoak aldez aurretik eta berariaz baimentzea lagapena, SPKLren 214.2.a) artikuluan adierazitako kondizioetan. Baimenaren eskaeraren ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da, eta, hori igarotzen bada, onartutzat joko da.

b) Lagatzaileak gutxienez kontratuaren 100eko 20 gauzatuta izatea, SPKLren 214.2.b) artikuluan ezarritako kondizioetan.

c) Lagapen-hartzaileak sektore publikoko erakundeekin kontratatzeko gaitasuna izatea, eskatutako kaudimen ekonomiko eta finantzario nahiz gaitasun tekniko edo profesionala edukitzea eta kontratatzeko debekurik ez izatea, SPKLren 214.2.c) artikuluan ezarritako kondizioetan.

d) Lagapena, adjudikaziodunaren eta lagapen-hartzailearen artekoa, eskritura publikoan formalizatzea, SPKLren 214.2.d) artikuluan ezarritako kondizioetan.

Lagatzaileari dagozkion eskubide eta betebehar guztien subrogazioa jasoko du lagapen-hartzaileak.

29. AZPIKONTRATATZEA

Kontratistak hirugarrenekin hitzartu ahalko du horiek zerbitzuaren zati bat ematea, klausula honek eta SPKLren 215. artikuluak xedatutakoari jarraikiz, prestazio horien artean **Karatularen 23. puntuan** adierazitakoak ez badaude.

Kontratistak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari, kontratua adjudikatu ondoren eta beranduenez hori egikaritzen hastean, azpikontratuak egiteko asmoa, eta honako hauek adieraziko ditu: prestazioaren zein zati azpikontratatu nahi duen eta azpikontratistaren nortasuna, harremanetarako datuak eta lege-ordezkariak. Era berean, behar bezala justifikatu beharko du hori gauzatzeko gaitasuna duela, dituen elementu teknikoak eta giza elementuak nahiz esperientzia aipatuta eta kontratatzeko debekurik ez duela egiaztatuta, SPKLren 71. artikuluari jarraikiz.
Kontratista nagusiak idatziz jakinarazi beharko dio kontratazio-organoari informazio hori aldatzen denean kontratu nagusia gauzatu bitartean, eta azpikontratista berriei buruzko beharrezko informazioa ere jakinarazi beharko dio.

Azpikontratistak azpikontratatuko den kontratuaren zatia egiteko sailkapen egokia badu, hori jakinaraztea nahikoa izango da horren gaitasuna egiaztatzeko.

Azpikontratistaren gaitasuna azpikontratua egin eta berehala egiaztatu ahal izango da, baldin eta azpikontratua beharrezkoa bada larrialdi bati erantzuteko edo presazko neurriak hartu behar badira, eta behar bezala justifikatzen bada.

Azpikontratistek kontratista nagusiaren aurrean bakarrik izango dituzte betebeharrak; hortaz, erakunde kontratugilearen aurrean, kontratua gauzatzearen erantzukizun osoa kontratista nagusiarena izango da, agiriei eta kontratuaren baldintzei jarraikiz. Era berean, kontratista nagusiarena da SPKLren 201. artikuluak aipatutako ingurumen-, gizarte- edo lan-arloko betebeharrak betetzearen erantzukizuna.

Erakunde kontratatzaileak kontratista nagusiak egindako azpikontratuen berri izateak ez du eragotziko erantzukizuna kontratista nagusiarena izatea esklusiboki.

SPKLren 216. eta 217. artikuluetan xedatutakoari jarraituz ordainduko zaie azpikontratistei eta hornitzaileei eta egiaztatuko dira ordainketa horiek.

30. KONTRATUA ALDATZEA

Kontratazio-organoak SPKLren 205. artikuluan aurreikusitako kasuetan aldatu ahal izango du kontratua.

Horrez gain, kontratazio-organoak kontratua aldatu ahalko du **Karatularen 24. puntuak** aukera hori berariaz jasotzen badu, kontratuan ezarritako baldintzetan.

Kontratuaren aldaketak ezingo du ekarri kontratuan aurreikusita ez dauden prezio unitarioak ezartzea.

Kontratuan aldaketak egiteko, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoari jarraitu beharko zaio.

31. HARTZEA ETA BERMEALDIA

Kontratua beteta egongo da, kontratistak prestazioa osorik gauzatu badu, betiere, kontratuko baldintzen arabera eta erakunde kontratatzailearen nahierara.

Onarpen partzial guztietan, hala dagokionean, baita onarpen totalean ere, erakunde kontratatzailearen ardura izango da kontratistak prestazioa ondo

gauzatu ote duen erabakitzea, hau da, kontratua gauzatzeko eta betetzeko jarritako baldintzak bete ote dituen erabakitzea, eta, beharrezkoa bada, bere ardura izango da kontratatutako prestazioak gauzatzeko eskatzea eta, prestazioak jaso dituenean akatsik ikusi badu, akatsak zuzentzeko eskatzea.

Kontratistak ez baldin badu lana hitzartu bezala egin, eta errua (gaizki-eginak edo akatsak) kontratistarena berarena bada, erakunde kontratatzaileak ez du zertan lan hori onartu, eta onartzen ez badu, ez du zertan ezer ordaindu, edo, aurretik zer edo zer ordaindurik bazuen, ordaindutakoa atzera berriz eskuratzeko eskubidea izango du.

Hori 27. klausulan jasotakoa eragotzi gabe egingo da, eta erakunde kontratatzaileak kasuan kasuko zigorrak eskatu ahalko ditu, berandutzearen, kontratatutako prestazioak gaizki ematearen eta/edo kontratuan jasotako beste edozein baldintza ez betetzearen ondoriozko kalte-galeren ordainarekin batera.

Berme-epea **Karatularen 25. puntuan** adierazitakoa da.

Aipatutako bermealdian egiaztatzen bada lanetan badela hutsik edo akatsik, kontratazio-organoak eskubidea izango du kontratistari horiek konpontzeko erreklamatzeko.

Bermealdia amaitzean, erakunde kontratatzaileak ez badu formalizatu klausula honetan aipatzen diren eragozpenetako edo salaketetako bat, kontratista erantzukizunetik libre geldituko da egindako prestazioari dagokionez.

32. KONTRATUA ETETEA

Erakunde kontratatzaileak eten egin ahal izango du kontratua, betiere kontratistari ondore horietarako berariaz aplikatzekoa den SPKLren 208.2 artikuluan aurreikusitako kalte-galerak ordaintzen badizkio.

33. KONTRATUA AZKENTZEA

Kontratua betetzen denean azkenduko da, edo ondoren araututako moduan suntsiaraztea adosten denean.

Honako hauek kontratua suntsiarazteko kausa izango dira, erakunde kontratatzaileak hala nahi izanez gero:

a) Beste edozein prozeduratan konkurtsoa edo kaudimengabezia adieraztea.

b) Kontratista epeak betetzerakoan berandutzea.

c) Kontratuaren betebehar nagusia ez betetzea.

d) Gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea, betiere aurretik funtsezko izaera hori eman bazaie.

e) Prestazioa ezin bete ahal izatea bete hasieran hitzartutako kondizioetan, Agiri honetan ezarritakoari jarraikiz kontratua aldatzeko aukerarik ez badago.

f) Kontratua gauzatu bitartean, kontratistak horretan parte hartzen ari diren langileei soldatak ez ordaintzea, edo langile horiei aplikatu beharreko hitzarmen kolektiboetan ezarritako kondizioak ez betetzea, kontratua gauzatu bitartean.

g) Oro har, kontratuko edozein betebehar ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

h) SPKLren 313. artikuluaren 1. apartatuan ezarritako kontratua eteteko baldintzak berariaz dira aplikagarriak, eta honako hauek dira:

   1. Atzera egitea zerbitzuak ematen hasi aurretik edo, kontratazio-organoari lepora dakizkiokeen arrazoiengatik, kontratuaren hasiera lau hilabete baino gehiago atzeratzea, kontratuan bertan horretarako adierazitako hasiera-egunetik zenbatzen hasita.

   2. Atzera egitea zerbitzua ematen hasi ondoren edo kontratazio-organoak erabakitako zortzi hilabeteko epea baino gehiago atzeratzea.

Klausula honetan ezarritako edozein suntsiarazpen-kausa gertatzean, automatikoki suntsiaraziko da kontratua; horretarako, nahikoa izango da erakunde kontratatzaileak kontratistari bere erabakia modu fede-emailean jakinaraztea.

Aipatutako jakinarazpena jasotakoan, honako hauek guztiak eman beharko dizkio kontratistak erakunde kontratatzaileari berehala: kontratatuko prestazioak egiteko berak egun horretara arte egindako agiri guztiak, kontratuagatik sortu den gainerako dokumentazioa eta informazioa, eta

erabili diren eta erakunde kontratatzaileak kontratistari eman dizkion agiri guztiak; horiek guztiak erakunde kontratatzailearen jabetzara igaroko dira.

Hori guztia, ondoren kontratuari dagokion likidazio ekonomikoa egitea eragotzi gabe. Likidazioa jarraian xedatutakoaren arabera egingo da.

Kontratua suntsiaraztetik sor litezkeen erantzukizun ekonomikoak, klausula honetan ezarritako kausengatik eta legez bidezko diren beste batzuengatik, kontratua egiazki suntsiarazitakoan likidatuko dira; erakunde kontratatzaileak, nolanahi ere, kontratua gauzatzen jarraitu ahal izango du.

Kontratua suntsiarazten den kasu guztietan, printzipioz, benetan egin dituen prestazio guztietatik onartuta daudenen prezioa jasotzeko eskubidea izango du kontratistak.

Kontratua kontratistari egotz dakiokeen edozein kausagatik suntsiarazten bada, erakunde kontratatzailearen alde sortuko da **Karatularen 26. puntuan** ezarritako zenbatekoa, dagozkion edonolako kalte-galeren ordainketez gain, eta zenbateko hori metagarria izango da. Bi zenbateko horiek kontratistari ordaindu beharreko preziotik eta behin betiko bermetik kenduko dira, eta, zenbatekoa gainditzen bada, dagokion erreklamazioa egingo da.

Hala ere, SPKLren 313. artikuluaren 3. apartatua berariaz aplikatuko da; hau da:

a) Klausula honen h.1 letran aurreikusitako etete-kasuetan, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 3ko kalte-ordaina (BEZa gabe) jasotzeko eskubidea baino ez du izango.

b) Klausula honen h.2 letran aurreikusitako etete-kasuetan, kontratistak, kontzeptu guztiengatik, mozkin industrial gisa emateari utzitako zerbitzuen kontratuaren adjudikazio-prezioaren % 6 jasotzeko eskubidea izango du (BEZa gabe).

Azkenik, erakunde kontratatzaileak eta kontratistak elkarren artean hala adostuta suntsiarazi ahal izango da kontratua. Halakoetan, aldeen artean baliozkotasunez hitzartutakora egokituko dira haien eskubideak.

34. ARAUBIDE JURIDIKOA

Kontratu hau pribatua da, eta honako hauek arautzen dute haren

prestaketa: Administrazio-klausula Partikularren Agiri honek eta Preskripzio Teknikoen Agiriak. Kontratuaren adjudikazioa, berriz, honako hauek arautzen dute: Administrazio-klausula Partikularren Agiri honek, Preskripzio Teknikoen Agiriak eta, horietan jasota ez dauden puntuetan, ondore horietarako SPKLn ezarrita dauden arauek (erregulazio harmonizatukoak ez diren kontratuetarako, baldin eta botere adjudikatzailea sektore publikoko erakunde bat bada, baina Administrazio publikoa ez bada).

Ondoreei eta azkentzeari dagokienez, kontratua Administrazio-klausula Partikularren Agiri honetan eta Preskripzio Teknikoen Agirian adierazitakoaren arabera arautuko da, eta, horietan aurreikusi ez denari dagokionez, zuzenbide pribatuko arauen arabera. Hala ere, SPKLren 319. artikuluan ondoreei eta azkentzeari buruz ezarritako arauak aplikatuko zaizkio kontratuari.

Horrez gain, SPKL eta Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua aplikatu egingo dira Agiri honetan arau-testu horietara berariaz jotzen duten arlo guztietan.

35. JURISDIKZIOA

Administrazioarekiko auzien jurisdikzio-ordena izango da eskuduna kontratuaren prestaketarekin, adjudikazioarekin eta aldaketekin lotutako auzigaiak ebazteko, aldaketa horien aurkaratzea SPKLren 204. eta 205. artikuluetan ezarritakoa ez betetzean oinarrituta badago eta ulertzen bada aldaketa horiek beste adjudikazio bat ekarri behar zutela.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoari errekurtsoa jar dakioke, SPKLren 44. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoari jarraikiz.

Kontratuaren ondoreekin eta azkentzearekin lotuta aldeen artean sortutako gatazkak ebazteko eskuduna jurisdikzio-ordena zibila izango da, klausula honen lehen paragrafoan adierazitako kontratu-aldaketen kasuan izan ezik.

I. eranskina. Abal-eredua.

[...] erakundeak (kreditu-erakundearen edo elkarren bermerako sozietatearen izena), [...] IFK zenbakidunak, [...] helbidea duenak (jakinarazpenetarako eta errekerimenduetarako) eta, haren izenean, [...] (ahaldunen izen-abizenak), eta Agiri honen behealdean adierazitako ahalorde-askiespenetik ondorioztatzen denez egintza honetan behartzeko ahalorde askietsia duenak, ABALA ematen dio: […] IFK zenbakia duen […](r)i (abaldunaren izen eta abizenak edo sozietatearen izena), […](r)en aurrean, […] eurokoa, […] kontratutik sortutako betebeharrei erantzun ahal izateko.

Entitate abal-emaileak bere erantzukizunpean adierazten du Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 56.2 artikuluan ezarritako baldintzak betetzen dituela. Abal hau obligaziodun nagusiarekiko solidarioki sinatzen da, espresuki uko eginda eskusio eta zatiketa onurei, eta [...](e)k lehenengo aldiz eskatzen duenean ordaintzeko konpromisoarekin.

Abal hau […](e)k berau indargabetzeko edo itzultzeko baimena eman arte egongo da indarrean.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

II. eranskina. Adierazpenak jasotzeko notario-aktaren eredua, lizitatzaileak, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak jartzeko konpromisoa egiaztatze aldera, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi izanez gero.

[OHARRA: Soilik aurkeztu behar da lizitatzaileak eskaintza onena aurkeztu badu eta lizitatzaileak, eskatutako kaudimena eta/edo baliabideak jartzeko konpromisoa egiaztatze aldera, beste erakunde batzuen kaudimenean eta/edo baliabideetan oinarritu nahi badu. ***Hirugarren erakundeak bete behar du****]*

[…] jaunak/andreak, […] NAN zenbakia duenak, […] enpresaren legezko ordezkari gisa (enpresaren IFZ: […]), adierazten du osoki ezagutzen dituela […] (lizitazio-enpresaren izena) lizitatzailea aurkezten den […] kontratatzeko lizitazio-baldintzak, eta adierazten du aipaturiko lizitatzailea adjudikaziodun gertatuz gero, haren esku kontratua gauzatzeko beharrezkoak diren bitarteko guztiak jarriko dituela, eta ez duela asmo horretan atzera egingo; halaber, espresuki onartzen du Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa. […](e)k berariazko baimena eman beharko du ordezkapena edo aldaketa egiteko.

Idazki hau aurkezteak esan nahi du […](e)k onartzen duela aipatutako konpromisoa, dagokion lizitatzaileak adjudikazioa irabazten duen kasuan.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

III. eranskina. Europako kontratazio-dokumentu bakarra (EKDB).

Urrats hauek egin behar dira Europako kontratazio-dokumentu bakarra betetzeko, gaitasunaren eta kaudimenaren erantzukizunpeko adierazpenei dagokiena:

1. Deskargatu NEIKERen kontratatzailearen profilean dagoen dokumentua, xml formatuan, espediente bakoitzean, «DEUC-nº expediente-xml» gisa identifikatua.
2. Joan esteka honetara:https://ec.europa.eu/growth/tools-databases/espd/filter?lang=es
3. Hautatu «Operadore ekonomikoa naiz» laukia
4. Hautatu «Inportatu EKDBa» laukia
1. «Arakatu» atalean, hautatu 1. urratsean deskargatu duzun dokumentua, xml formatuan.

Espediente horri dagokion EKDBa eskuragarri dagoenean, bete eta lizitazio-plataformara igo behar da, sortutako xml dokumentua erantsita, edo, bestela, betetako dokumentua inprimatu, sinatu, eskaneatu eta igota.

IV. eranskina. Jakinarazpenak jasotzeko lehenetsitako bidea izendatzea.

[…] jaunak/andreak, […](e)n bizi denak eta […] NAN zenbakidunak, bere izenean edo […](r)en ordezkari gisa (egoitza soziala: […]; IFK: […]), erabateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izanik, lizitazioaren jakitun izanik, […] prozeduraren bitartez, […] kontratatzeko, honen bidez, lizitatzaile honen harira egin beharreko edozein jakinarazpen jasotzeko lehenetsitako bide gisa izendatzen du honako hau (*):

☐ **Posta elektronikoa**.

☐ **Posta ziurtatua**.

☐ **Faxa**.

(*) Adierazi lehenetsitako bidea.

Dena den, hona hemen jakinarazpenak jasotzeko datuak:

Helbide elektronikoa: ……

Posta-helbidea: ……..

Fax-zenbakia: ……..

Harremanetarako telefonoa(k): ……..

[Oharra: Jakinarazpenak arinago egiteko helburuarekin, gomendatzen da eskaintzaileen helbide elektronikoa izendatzea lehenetsitako bitartekotzat. Bitarteko hori guztiz baliozkoa izango da jakinarazpenak jasotzeko, eskaintzaileak berak izendatu duenez gero. Halere, beste bitarteko bat lehenets daiteke. Bitartekorik lehenesten ez bada, adierazitako helbidera bidaliko dira jakinarazpenak, posta ziurtatu bidez.]

V. eranskina. Formulen bidez balioztatzen diren irizpideei buruzko proposamena.

[…] jaunak/andreak, […] helbidean bizi denak eta […] NAN zenbakidunak, bere izenean edo […](r)en ordezkari gisa (egoitza soziala: […]; IFK: […]), erabateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izanik, lizitazioaren jakitun izanik, […] prozeduraren bitartez, […] kontratatzeko, honen bidez

HONAKO HAU ADIERAZTEN DU:

1. […] kontratua betetzeko konpromisoa hartzen duela, ondorengo baldintzen arabera:

1. Eskaintza ekonomikoa: 35 puntu

1. LOTEA

	Prezioa, EDALONTZIRIK GABE (edarien kasuan) GEHIENEKOA- ~~BEZik gabe~~	Prezioa, EDALONTZIRIK GABE (edarien kasuan) ESKAINTZAKOA- ~~BEZik gabe~~	Haztapena
% 100 arabica kafea/kakaoa + % 100 esnea	0,70		10
Erabili eta botatzeko kartoizko edalontzia	0,05		Ez da baloraruko
Ur naturala, 500 ml	1 €		5
33 cl-ko askotariko freskagarrien lata/ontzia	2 €		5
Sandwich mistoa	2,5 €		5
Fruitu lehorren poltsa	2 €		5
Aperitiboak (makilatxoak pipekin, etab.)	2 €		5

2. LOTEA

	Prezioa, EDALONTZIRIK GABE (edarien kasuan)	Prezioa, EDALONTZIRIK GABE (edarien kasuan)	Haztapena

	GEHIENEKOA- ~~BEZik gabe~~	ESKAINTZAKOA- ~~BEZik gabe~~	
% 100 arabica kafea/kakaoa + % 100 esnea	0,70		10
Erabili eta botatzeko kartoizko edalontzia	0,05		Ez da baloratuko
Ur naturala, 500 ml	1 €		5
33 cl-ko askotariko freskagarrien lata/ontzia	2 €		5
Sandwich mistoa	2,5 €		5
Fruitu lehorren poltsa	2 €		5
Aperitiboak (makilatxoak pipekin, etab.)	2 €		5

2. Eskaintza teknikoa:

1. ETA 2. LOTEAK

MAKINEN MANTENTZE-LANAK: 10 PUNTU	
Mantentze-lanak: makinen mantentze-lanen plana/egunak (deskribatutako lanak egiteko ohiko aldizkakotasuna/konpromisoa. Ohiko aldizkakotasun horretaz gain, kontratuaren arduradunak deitu egingo du birjartze-premia/matxura/urgentzia izanez gero, baina hori baldintza-agirietan jasota dago).	
Gaiak birjartzea eta makina garbitzea (hutsuneak)- 5	Hilean _____ aldiz (maiztasuna adierazi)
Makinen mantentze-lanak- 5	Hilean _____ aldiz (maiztasuna adierazi)
EDARI BEROEN MAKINEN PRODUKTU GEHIGARRIAK: 10 PUNTU	
Makinak honako hauek izan behar ditu: kafea, tea, kafesnea, txokolatea (eta nahasketa-barietateak). Adierazi behar da zer edari gehigarri duen (adibidez, kaputxinoa). Ez dira kontuan hartuko «kafe hutsa»/«ebakia», ez baitira produktu gehigarriak.	
1._____ (erabili laukitxoak edari beroa labur zerrendatu eta izendatzeko)	2._____(adierazi)
3._____(adierazi)	4._____(adierazi)
5._____(adierazi)	6._____(adierazi)
APERITIBOEN MAKINEN PRODUKTUAK: 10 PUNTU	
Produktu	Adierazi produktuen guztizkoa eta

osasungarriak/hurbilekoak/bidezko merkataritzakoak* (kopurua)	horietatik zenbat diren aperitibo osasungarriak. Produktu kopurua, guztira: _____ (adierazi) Produktu osasungarriak/hurbilekoak/bidezko merkataritzakoak*: ____ (kopurua adierazi)
APERITIBOEN MAKINEN PRODUKTUAK: 15 PUNTU	
Eskaintzen dituen sandwich motak (nahitaezko sandwich mistoaz gain) (Mistoa bakarrik): 0 - Mota bat gehiago: 0,5 puntu - Bi mota: 1 puntu - Hiru mota: 5 puntu	Adierazi zenbat sandwich mota izango diren makinan
Aperitibo gozoen (galletak, etab.) kopurua (zenbat mota) 5 puntu	Makinan _____ produktu gozo eskainiko dira (zehaztu zein)
Aperitibo gazien (sandwichak kontuan hartu gabe) kopurua (zenbat mota) 5 puntu **Halakotzat hartzeko, ziurtagiria/etiketa eta abar izan behar ditu.*	_____ produktu gazi eskainiko dira (sandwichak kontuan hartu gabe) (zehaztu zein)

BERDINTASUNA: 5 PUNTU	
Berdintasunaren arloko prestakuntza (2 ordu) BAI/EZ	

EUSKARA: 5 PUNTU	
jendeari arreta euskaraz emateko gaitasuna duen zerbitzua, gutxienez B2 titula edo antzekoa bai/ez	

1. LOTEA

MAKINEN ENERGIA-ZIURTAGIRIA: 10 PUNTU	
A+ kalifikazioko energia-ziurtagiria duten makinen kopurua/makina kopurua	A+ kalifikazioko energia-ziurtagiria duten makinen kopurua: _____ Makina kopurua, guztira: 3 makina

2. LOTEA

MAKINEN ENERGIA-ZIURTAGIRIA: 10 PUNTU	
A+ kalifikazioko energia-ziurtagiria duten makinen kopurua/makina kopurua	A+ kalifikazioko energia-ziurtagiria duten makinen kopurua: _____ Makina kopurua, guztira: 4 makina

2. Kontratua arautzen duen dokumentazioa ezagutzen duela, eta hori berariaz eta oso-osorik onartzen duela.

[…](e)n, […](e)ko […]aren […](e)(a)n.

[Sinadura]

VI. ERANSKINA. Erantzukizunpeko adierazpena, desgaitasuna duten pertsonentzat lanpostuen ehuneko 2ko kuota gordetzeko eta berdintasun-plana edukitzeko betebeharra betetzeari buruzkoa.

[…] jaunak/andreak, […](e)n bizi denak eta […] NAN zenbakidunak, bere izenean edo […](r)en ordezkari gisa (egoitza soziala: […]; NAN edo IFK: […]), erabateko gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna izanik eta […](r)en lizitazioaren jakitun izanik, honen bidez
HONAKO HAU ADIERAZTEN DU

LEHENENGOA:

- Enpresak 50 langile edo gehiago dituela: BAI/EZ
- Enpresak 50 langile baino gutxiago dituela: BAI/EZ

BIGARRENA: (Enpresak 50 langile edo gehiago baditu)

Langileen ehuneko 2 gutxienez desgaitasuna duten pertsonak direla, azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren (desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarteratzeari buruzko Lege Orokorraren testu bategina onartzen duena) 42. artikuluarekin bat etorriz.

HIRUGARRENA: Berdintasun-plan bat dutela, berdintasun-planen erregistroan ERREGISTRATUA.